



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Derioko Udala

Derioko Udalak 2024 urterako Lan-Eskaintza Publikoa onarpena

Derioko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2024ko abenduaren 17an egindako bileran, onartu zuen, besteak beste, honako ebazpena (TGB 307/42/2024-3):

Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 16ko erabakiaren bitartez (2021-03-31ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialen argitaratu zen), zeina uztailaren 28ko Alkatetzaren 289/2021 Dekretuaren bitartez aldatu baitzen (2021/08/13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean), 2021eko enplegu publikorako eskaintza (EPE) onetsi zen, eta honako plaza hauek jaso ziren, besteak beste:

- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (30), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2016-12-22ko derrigortasun-datarekin.
- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (34), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2022-12-31ko derrigortasun-datarekin. Barne-sustapena Derioko Udaleko langileekin.
- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (41), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2021-06-29ko derrigortasun-datarekin.
- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Bereziko eskala, goi-mailako teknikari azpieskala (37), A1 taldea, 26 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2020-12-30eko derrigortasun-datarekin. Kirol-teknikaria.
- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Bereziko eskala, erdi-mailako teknikari azpieskala (38), A2 taldea, 25 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2020-12-30eko derrigortasun-datarekin. Kultura-teknikaria.

Hauexek dira argitaratutako (2024-08-13ko BAO) azken lanpostuen zerrendan plaza horietarako jaso diren zenbakiak:

- Plaza bat, Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala. Txanda irekia (8. zenbakia).
- Plaza bat, Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala. Barne-sustapena (31. zenbakia).
- Plaza bat, Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala. Txanda irekia (27. zenbakia).
- Plaza bat, Administrazio Bereziko eskala, goi-mailako azpieskala (37), A1 taldea, kirol-teknikaria (34. zenbakia).
- Plaza bat, Administrazio Bereziko eskala, erdi-mailako azpieskala, A2 taldea. Kultura-teknikaria (35. zenbakia).

Uztailaren 29ko Alkatetzaren 352/2024 Dekretuaren bitartez, 2024ko enplegu publikorako eskaintza onetsi zen, eta plaza hauek jaso ziren bertan:

- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (45. zenbakia), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2027-12-31ko derrigortasun-datarekin. Barne-sustapena Derioko Udaleko langileekin.
- Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Bereziko eskala, zerbitzu berezi-tako azpieskala, lehen mailako ofiziala (32. zenbakia), C2 taldea, 19 lanpostu-maila, 1. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun-datarik gabe. Barne-sustapena Derioko Udaleko langileekin (2019ko EPEn hutsik geratu zen plaza).



Argitaratutako (2024-08-13ko BAO) azken lanpostuen zerrendan plaza hauei dago-kienez agertzen diren zenbakiak hauexek dira, hurrenez hurren: 42. zk. (plaza: Adminis-trazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala. Barne-sustapena) eta 29. zk. (plaza: Administrazio Bereziko eskala, zerbitzu berezietako azpieskala, lehen mailako ofiziala. Barne-sustapena)

Ikusi da idazkariaren 2024ko abenduaren 17ko txostena, 2024. urterako enplegu pu-blikorako eskaintza osagarriari buruzkoa. Bertan, kontuan hartu da zein den enplegu publikorako eskaintza iraungitze-data eta, Udalbatzak 2023ko abenduaren 26an onetsitako Derioko Udalaren aurrekontua onetsi ondoren, behin betiko bihurtu zena, Bizkai-ko Aldizkari Ofizialean 2024ko urtarrilaren 23an argitaratutakoaren arabera, non aurretik aipatutako plazak hutsik daudela eta aurrekontuan jasota daudela adierazi baita eta ho-nakoa proposatzen da:

ERABAKIA

Lehenengoa: Derioko Udalaren 2024. urterako enplegu publikorako eskaintza gehi-garria onestea, eta egikaritu barik dagoen 2021eko EPEari dagozkion bost plaza gehi-tzea, honako hauek, hain zuzen:

1. Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (8), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2016ko abenduaren 22ko derrigortasun-datarekin.
2. Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (31), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2022ko abenduaren 31ko derrigortasun-datarekin. Barne-sustapena Derioko Udaleko langileekin.
3. Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Orokorreko eskala, administrari azpieskala (27), C1 taldea, 22 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2021eko abenduaren 29ko derrigortasun-datarekin.
4. Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Bereziko eskala, goi-mailako teknikari azpieskala (34), A1 taldea, 26 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2020-12-30eko derrigortasun-datarekin. Kirol-teknikaria.
5. Ezaugarri hauek dituen plaza bat: Administrazio Bereziko eskala, erdi-mailako teknikari azpieskala (35), A2 taldea, 25 lanpostu-maila, 3. hizkuntza-eskakizuna 2020ko abenduaren 30eko derrigortasun-datarekin. Kultura-teknikaria.

Bigarrena: 2024ko enplegu publikorako eskaintza osagarria argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Derioko Udaleko egoitza elektronikoan eta Euskal Herriko Aginta-ritzaren Aldizkarian.

Hirugarrena: Era berean, 2024ko enplegu publikorako eskaintza argitaratzea Bizkai-ko Aldizkari Ofizialean, Derioko Udalaren egoitza elektronikoan, eta Euskal Herriko Agin-taritzaren Aldizkarian, zenbakiak behar den moduan zuzenduta

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, baina bere aurka aukera-ko berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazio-organo beraren aurrean, hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, zuzenean, administrazioa-rekiko auzi errekurtsioa ere jarri ahal izango da egoki den Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko apean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztaila-ren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, interesdu-nek egoki irizten dituzten baste errekurtsio guztiak ere ezarri ahal izango dituzte.

Derion, 2024ko abenduaren 19an.— Behin Behineko Idazkaria